


# 2002ko JARDUERAK



## **0. Egoera orokorra**

Udalbidek betiko ildoari jarraiki dio: euskara, euskal kultura, lan mundua, ingurugiroa, euskaraz diharduten komunikabideak, euskal kirolak... etabarren proiektu eta iniziatibak laguntzen eta garatzen. Bestalde, Elkartearen web gunea martxan jarri da: [www.udalbiltzainfo.com](http://www.udalbiltzainfo.com).

## **1. Ekimenak**

Garatu diren ekimen guztiak, Udalek propioak dituzten konpetentzi arloetan burutu dira.

Beste urteetan bezala, egitarauari dagokionean, laguntza behar duten hiritar sektoreekin harremanak edukitzea ezan da egitekorik nagusiarena; hau da, euskara, eta kultura lantzen ari diren elkarte eta sektoreekin. Elkarte askorekin egon eta beraien kezkak eta beharrak jasotzen eta behar bezalako erantzuna ematen saiatu da Udalbide.

Euskara eta Kulturaren arloan, bere egoera ahulena den lekuetan eta laguntza berezia behar duten tokietan, bere babesa ematen saiatu da UDALBIDE. Horrela, Nafarroan eta Iparraldean, kultura eta komunikabideetako sektoretan gure hizkuntza, euskara, landu eta garatzen ari diren ekimenei bultzada emanaz.

**Nafarroari** dagokionez, hauek izan dira ekimen nagusienak:

- ▀ **NAFARROAKO IKASTOLEN FEDERAKUNTZA (210.350 euro)**: Nafarroan ikastolek euskal kultura eta euskara ezagupena bultzatzen dute. Federakuntzako arduradunek txosten zehatz bat aurkeztu zuten eta proiektu estrategiko erara hartu zen erabakia.
  
- ▀ **SORTZEN (21.000 euro)**: "Euskaraz mintzo" ekimena: kanpo, haur eta gurasoentzako ekitaldi kulturalak euskaraz antolatzen (jolasak eta jokoak). Eskolako geletatik at ere euskararen erabilera bultzatzea zuen helburu eta baita, gurasoak horretan buru-belarri parte hartzea ere; halaber, aurrentzat aisialdiak euskaraz eskaintzeko zerbitzu bat abian jartzeko eman zitzaizen laguntza.
  
- ▀ **EUSKALERRIA IRRATIA (5.782'55 euro)**: Iruñea aldean egiten du euskarazko irratia, Betelu eta Sakana aldera iristen bada ere. Nolanahi ere, Nafarroako eskualderik euskaldunenak harrapatzen ditu. Udalbideren laguntzari, ekaitz batek sortu zuen ezbehar bat estaltzeko izan zen. Gainera, 2002. urtean Nafarroako Gobernuak laguntza uko egin dio.
  
- ▀ **ORREAGA Elkarte (5.000 euro)**: Nafarroako Elkarte kultural honek euskal kantu liburu bat argitaratu du Udalbideren laguntzarekin. Liburua euskaraz, gazteleraz eta frantsesezko kantu herrikoiak jasotzen ditu eta ale bana banatu zitzaizen Euskal Herriko udal guztiei.
  
- ▀ **EUSKARA KULTUR ELKARGOA (EKE) (42.000 euro)**: Nafarroan euskal kultura eta euskara bultzatzen duen elkarte bat da. Eta "Artekaria" deituriko ekimena martxan jartzen lagundu zion Udalbidek. Bi abokatu egiten dute lan zerbitzu honetan eta nafarren hizkuntza eskubideak defendatzea du helburu, bereziki euskararenak, noski, norberakoaren eta taldeen euskara erabiltzeko eskubideak babestuz; halaber, EKEk Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoarekin kolaboratzen du eta web gunea martxan jarri dute, Nafarroan euskararen inguruan egiten dena eta egiten ez dena azaltzeko, "sarea" tresnaren medioz.

**Iparraldeari** dagokionez, laguntzak hauek izan dira:

- ▀ **SEASKA (240.000 euro):** Iparraldeko Ikastolen Federakuntzak ikastolak eraikitzeko proiektu zehatza aurkeztu zuen; euskal kultura eta euskara bultzatzeko oinarritzko baliabidea ikastolak eraikitzea izanik; emandako diru-laguntza, Hazparneko ikastola handitu eta berritzeko erabilia izan zen.
- ▀ **MENDIZOLAN Elkarte** (**12.000 euro**): Elkarte honek PIKA aldizkaria argitaratzen du. 7tik 13 urte bitarteko haurrentzat euskarazko aldizkaria.

Ekimen hauek aparte aipatzekoa da UDALBIDEK **"Euskal Herria ezagutzen"** liburuxka argitaratu du. Liburuxkak, labur bada ere, Euskal Herriko **"argazkia"** oinarritzko datuak eskaintzen ditu: biztanleria, ekonomia, euskara, gizartea eta eboluzio demografikoa. Miloi bat ale atera eta Euskal Herri osoko etxeetan banatu da, Udaletan eta beste Erakundeetan.

Bestalde, **UDAKO EUSKAL UNIBERSITATEA (UEU)** ere lagundu zen (**25.000 euro**) udal administrazioari buruzko master edo kurtso berezi bat antolatzeko. Masterra udal arduradunei zuzenduta dago eta bertan Iparraldeko, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako berezitasunak aztertzen dira.

Aldi berean, UDALBIDEK **"HURBILTZEN"** izeneko programa jarri du martxan. Elkartearekin bat datorren bere helburua xaloa da: Euskal Herriko Udal, herritar eta gizarte, ekonomia eta kultura eragileen artean anaitze hitzarmenak eragitea, Euskal Herriko izate sentimendua lortzeko harremanak, bitartekoak eta elkarlana sortuz. Anitzak baikara, baina oinarritzko ezaugarri komunak baititugu Euskal Herrian. Eta mundu globalizatuan eta gero eta Europa batuagoan, euskaldunok giza talde lau garen aldetik, beti ere bere herritarren erabaki askeei erantzunez, Herri bezala garatzeko eskubidea dugu.

90eko hamarkadan ugariak izan ziren mundu guztiko udalerrri eta hiriekin anaitze hitzarmenak ezarri zituzten Udalerriak. Anaitze hauen zergatiak anitzak dira, eta baita hauen hedadura, garrantzia eta iraunkortasuna ere.

Protokolozko ekintzetatik harantzago joan eta anaitutako udalerrri bakoitzeko herritar eta gizarte, ekonomia eta kultura eragileak inplikatu. Ahal dugun lekuetan, udaletxeak izango dira hitzarmenen aktibatzaileak eta koordinatze lanak egingo dituzte.

Lankidetzeta gaiak honako hauek izan daitezke:

- ✓ Udal-kudeaketa, esperientzia-trukea sustatuz.
- ✓ Euskara, euskaltegien eta udaletxeetako Euskara Zerbitzuen bidez.
- ✓ Hezkuntza, ikasle eta irakasleen arteko trukea sustatuz.
- ✓ Turismoa, esperientzia trukea eginez eta ekintza komunak garatuz.
- ✓ Enpresa eta merkataritza.
- ✓ Gastronomia eta nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizkinak.
- ✓ Kultura.
- ✓ Kirola.
- ✓ Hirugarren adina.
- ✓ Ohiturak.

Azkenik, aipatzekoa da UDALBIDEk **euskal diasporarekin** harreman zuzena eta estua garatzen hasi dela, batez ere, bere webgunearen eskutik. Ekimen honen helburua, elkarrekin egiten duen lana haiei iritsaraztea da. Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunak Udalbideren egitasmoen partaide izatea beharrezkoa eta oinarrizkoa baita. Euskaldunak dira, eta nahiz eta bizimodua bizi diren tokian antolatua izan, beren bihotzak eta kezak hemen daude, Euskal Herrian, eta beren laguntzeko nahia argia da. Honen guztiaren adierazgarri oraindik orain Idahoko Legebiltzarrak egin duen adierazpena da, UDALBIDEk zoriondu eta eskertu zuena.

## 2002. URTEAN EMANDAKO LAGUNTZAK: 561.132 euro

<b>IPARRALDE</b>	<b>252.000 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>SEASKA</b>	240.000
<b>Kultura</b>	
✓ <b>MENDIZOLAN Elkarte</b>	12.000

<b>EUSKAL HERRI Osoa</b>	<b>25.000 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>UEU</b>	25.000

<b>NAFARROA</b>	<b>284.132 €</b>
<b>Hezkuntza</b>	
✓ <b>Nafarroako Ikastolen Federakuntza</b>	210.000
✓ <b>SORTZEN</b>	21.000
<b>Komunikabideak</b>	
✓ <b>EUSKALERRIA Irratia</b>	5.782,55
<b>Kultura</b>	
✓ <b>Euskara Kultur Elkargoa (EKE)</b>	42.000
✓ <b>ORREAGA Elkarte</b>	5.000